


BALEIKE



IMANOL MANTEROLA

**"PALESTINARA
JOATEAK
KONTZIENTZIA
ESNATU DIT"**



B

319€

26,58€/hilabetean

7 kg

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

BALAY
3SC871B



8 kg

469€

39,08€/hilabetean

A+++

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

BEKO
DHA8512RX

LEHORGAILUAK
Ordaindu
12 hilabeteetan
Interesik gabe



A++

539€

44,91€/hilabetean

8 kg

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

AEG
T7DBK841



A++

569€

47,41€/hilabetean

8 kg

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

BOSCH
WTG87229ES

TIEN 21

Endañeta Zumaia

www.endañetazumaia.com



BALEIKE 284

2019-OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
IMANOL MANTEROLA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|---|
| 5 | Aurrena Gorka Zabaleta
<i>Katilikada bat</i> | 29 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Antsietatea</i> |
| 6 | Hitz tantak Izaskun Urbietta Esnal
<i>Sambou Diaby</i> | 31 | Heziketa Izar Arregi
<i>Haurrak eta sare sozialak</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Luis Llavori
<i>Haran magikoa</i> | 32 | Zientzia eta ingurumena
Gorka Zabaleta
<i>Arantza Aranburu: Iraganeko klimaren kutxa beltzak dira kobazuloetako estalagmitak</i> |
| 10 | Hainbat aburu Pello Enparan
<i>Ezinegonak eragindako aldarrikapena</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Karea eta karobiak, kea airean</i> |
| 11 | Errematea Miren Osa
<i>Crowdfundinga</i> | 42 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Migrazioaren musika</i> |
| 12 | Elkarrizketa Juan Luis Romatet
<i>Imanol Manterola: Palestinako begiradak</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Maialen Odriozola
<i>Ximon Olaizola, hegazkin pilotu baten lanak</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Ezer ez da dirudiene</i> |
| 24 | Bazkide kluba | 45 | Nire txanda Maialen Velarde
<i>Co-housing</i> |
| 26 | Plazan bazan | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Museifikazioa</i> |

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Izaskun Urbietta Esnal

Maria Maya Manterola
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua

publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-86 21 52



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoekoen senide eta lagunen elkarte

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00



ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna

tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)



Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31



OKANDEGIA
Arkupera

Nagusia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OKI-EDER



Arruti
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943-64 34 06
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autoszumaia@bosch-bcs.com

Tel. 943-86 14 85



Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, beheko. tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax. 943-86 27 48



BAI BIDEA

Batzokia - jatetxea
Eusebio Gurrutxaga, 6
20750 ZUMAIA
943-86 02 75

bai bidea



BAKUN

ITZULPEN ETA ARGITALEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net



Basodi
albaitaritza

filbaitaria
Itzi Garmendia

Basodi, 7, beheko - tel. 943-14 33 10
veterinaria@basodivet.com
www.basodivet.com

Goizez: 11-13 / Arratsalaz: 16-19:30 / Astelehener goizean eta larunbatean itxia
Larrialdiarako: 605 72 87 07 Etaz ezeko zerbitzua



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Katilukada bat



GORKA ZABALETA

The Wire telesaileko eszena bat: alkate ohi beteranoa eta alkatezta irabazi berri duen gaztea bildu dira kafetegi batean. Gaztea hasi da berriketan:

-Alkatea mendea hartu dut, Tony. Ez zen batere erraza!

-Alderdiak kontuan hartu beharko du. Hain gazte eta eder, ziur planak dauzkazula. Oraingoz, hiria gobernatu besterik ez egin.

-Tony, galdera bat egin nahi dizut: zergatik ez zinen aurkeztu zure lehen agintaldia amaitu eta gero?

-Utz iezadazu istorio bat kontatzen, Tommy. Alkatetza hartu nuen lehen egunean, egurrezko eserleku dotore batean eseri ninduten, gauza ederrez inguratuta. Pentsatu nuen "Ba al dago hau hobetzerik"? Ondoren, Pete sartu zen. Portzelanazko katilu eder bat zekarren, ikaragarri handia. "Sindikatuak bidaltzen dizute", azaldu zidan. "Nire lehen eguna ospatzeko bidaliko dute", pentsatu nuen. Mahai gainean utzi zuen. Barrura begiratu eta nazkagarria zen. "Zer da hau?", galdetu nuen. "Zuri zer iruditzen zaizu?". "Kaka dirudi... Zer nahi duzu honekin egitea?" "Jan", erantzun zidan. "Jan?", "Bai, alkatea zara, jan egin behar duzu...". Nire lehen eguna zen, Petek nik baino gehiago zekien kontu hauetaz... Jan egin nuen. Amaitu nuenean, atea jo zuten berriro. Pete zen, beste katilukada batekin, beltzek bidalitakoa. Jan egin nuen. Atzetik beste katilukada bat. Poloniarrena. Jarraian, ministroena. Eta badakizu zer, Tommy? Hori da. Kaka jaten pasatzen duzu egun osoa, egunez egun, urtez urte. Ohartu nintzen arte asko hobeto nengoela abokatu lanetan, nire familiarekin.

Eszena hau ikusi eta gure zinegotziekin akordatu naiz. Seguru udaletan esperientzia ez dela hain gordina, baina "politikak kiratsa dario" mantra hain zabalduta dagoen gure gizarte posmoderno honetan, gogoia behar da pauso bat aurrera egiteko. Egin zure zortzi orduak lantokian; nola hala, molda zaitez etxeko ardurei aurre egiteko; agur zuretzat behar zenuen denborari; bihar batzordea, irakurri txosten hauek; kriket taldekoek lokala nahi dutela, pentsatu non sar ditzakegun; kalean, begirada arraroak, agur ukatuak eta agur esperogabeak, eta errietaren bat ere bai, "gure kalea desastre" dagoelako. Eta hanka sartzen duzu, noski, ez zarelako perfektua, ez zarelako Justin Trudeau; eta zure kontraesanak agerian gelditzen dira egunero, galderak dauzkazulako erantzunak baino gehiago...

Ez gaude ardurak hartzeko prest, ez dugu marroirik nahi, baina pausoa egiten duena gupidarik gabe larrutzeko ez dugu asko behar. Nire partetik, goizero katilukada bat kafesne zinegotzi izan diren, diren eta maiatzaren 26tik aurrera izango diren guztientzat. ■■■

**ETA HANKA SARTZEN
DUZU, NOSKI, EZ
ZARELAKO PERFEKTUA,
EZ ZARELAKO JUSTIN
TRUDEAU**

Sambou Diaby

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Txikitatik hasi zen kantatzen eta dantzatzen Sambou Diaby oikiarra. Ezkutuan egiten zuen; hori zen bere sekretua. Duela hiru urte *Go!azen* 3.0 telesailean agertu zen figurante gisa. Aktore izan nahi zuela erabaki zuen orduan.

Interpretazioa ikasten ari da, eta laster Azkoitian estreinatuko den *K-baret* musikalean arituko da. **Nola etorri zitzaizun *Go!azen* telesailean parte hartzeko aukera?**

Momentu horretan lehenengo batxilergoa egiten ari nintzen. Lagun batek esan zidan telesail horretarako casting bat zegoela, eta animatu egin nintzen egitera. Castingerako kantatzen, dantzatzen eta aktuatzen ari nintzen bideo bat bidali behar izan nuen. Gero, Miramonetik deitu zidaten beste casting bat egiteko.

Figurante lanak egin zenituen.

Telesailaren denboraldi guztian parte hartzeko aukera eman zidaten, eta atal guztietan agertu nintzen. Pentsatu nuen aukera ona zela ikasteko eta grabaketa bat nolakoa den ikusteko. Ekainetik iraila erdira aldera arte aritu ginen grabatzen. Ordu askoko lanegunak izan ziren, baina oso ondo pasa nuen.

Zein izan zen zure papera, zehazki?

Gaiztoen taldekoka nintzen, eta nire lana batez ere dantza egitea zen. Horretaz gain, eszena jakin batzuetan interakzioa egiten nuen: erreakzioak, espresioak... Bost izan ginen figurante lanetan.

Zer gaitasun behar dira musikale batean parte hartzeko?

Dantzatzen eta abesten jakiteaz gain, aktuatzen ere jakin behar da.

Batxilergoa amaituta, interpretazio ikasketak egitea pentsatu zenuen.

*Go!azen*en parte hartu eta gero, aktore izan nahi nuela erabaki nuen. Antzerkiarekin zerikusia zuen zerbait ikasi nahi nuen eta Donostiako TAE (Arte Eszenikoen Tailerra) eskolan eman nuen izena. Gorputza eta mugimendua, ahots teknikak, interpretazioa ikasten dugu bertan. Aurten bukatzen ditut ikasketak, eta ia nire buruarekin nituen mugak kentzea lortu nuen. Oso lotsatia

naiz, eta antzerki eskolan horixe kentzen ikasi nuen lehendabizi.

Iragarki pare batean parte hartu duzu, eskolan antzerkiak egiten dituzue eta laburmetraia batzuetan ere agertu zara.

Nire eskolak Andoaingo zine eskolarekin lankidetzaz hitzarmena du, eta hango ikasleek beraien proiektuak egiteko aktoreak behar badituzte, guregana jotzen dute. Agertu naiz horien laburmetraia batzuetan eta oso esperientzia ona izan da. Antzerkia egitea eta kameraren aurrean aritzea ezberdinak dira, baina ikasteko nago eta dena baliagarria zait.

K-baret musikala prestatzen ari zara une honetan.

Azkoitiko Baztartxo antzokian ari gara entseatzeko, eta estreinaldia ere bertan egingo dugu laster.

Iazko urtarrilean hasi ziren musikale hori prestatzen, eta ni udaran sartu nintzen. Nire ikaskide batek dantzari moduan hartzen du parte eta esan zidan antzezle bat behar zutela.

Jende gazteak aurrera daraman musikale bat da, ezta?

Guztira 20 bat pertsona gara, gehienak azpeitiarrak eta azkoitiarrak. Izugarritzko showa ari gara prestatzen, eta estreinatu ondoren, bira bat egiteko asmoa dugu Gipuzkoan zehar.

Zertaz den aurreratu dezakezu?

Parisen dago girotuta. Bi emakumek lokal bat alokatzen dute bertan kabaret bat egin eta arrakasta izateko. Hori da abiapuntua, eta hortik hasita, pertsonaien artean beste trama batzuk daude: gatazkak, maitasun istorio gazi-gozoek, buruhausteak...

Estreinatzeko gogoz egongo zara.

Bai, nola ez. Bi ordu inguruko musikala da, eta protagonismo handia dut obran. Pozik nago.

Ekainean bukatuko dituzu ikasketak. Zer asmo duzu etorkizunerako?

Madrilera joan nahi dut ikasten jarraitzera. Azkenean, hemen pixka bat mugatuta nago, eta leku handiago batera joan nahi dut. Han, nahiz eta lehia handia izan, aukera gehiago daude, bai ikasteko, baita castingak egiteko ere. Lanean eta ikasten jarraitzeko ilusioa dut. Bidean esaten dizkidaten gauza onak eta hobetzekoak onartu eta aurrera jarraitzea da nire asmoa. ■■■



Haran magikoa

ARGAZKIA ETA TESTUA: LUIS LLAVORI

Ezbairik gabe, Koloreen Harana munduko fenomeno natural harrigarrienetako bat da, bakarra, Eozeno garaikoa. Egun distiratsu eta eguzkitsuetan, Koloreen Harana forma, argi eta koloreen sinfonia hutsa da.

Koloreen Harana Gipuzkoako kostaldean dago, Jaizkibel mendiaren erdialdean, Hondarribia eta Pasaia artean, itsasertzean. Haranaren labarretako paretak egitura zoragarri bat osatzen dute, non aurkituko ditugun kolore harrigarriak (laranja, okre eta arrosak, zuriak eta horiak) eta erliebe bikaina, hainbat formarekin.

Argazki hau egiteko, 17-55 lentea erabili genuen, lente horretako zoomak enkoadraketa oso eroso ematen zigulako. Argazki batzuk egin eta emaitza kameraren pantailan aztertu ondoren, konposizio hau aukeratu genuen, 20 mm-ko foku distantziarekin (kontuan izan behar da irudia 1,5 moztuta dagoela, lentea DX formatukoa delako eta kamera D800, FX full frame formatukoa). Irudiaren deskribapen teknikoan adierazitako parametroak argazkia pultsuan egindakoak dira. ■■■

Datu teknikoak: Nikon D800; Nikon 17-55mm; f2,8 DX; 20mm; 1/100 seg.; f5,6; ISO: 500; 3966K kolore tenperatura.

www.llavori-luis.com/eu/ortpolios/el_valle_de_los_colores







Ezinegonak eragindako aldarrikapena

Iazko otsailean hasi ginen Zumaiako jubilatuen eta pentsiodunen talde bat astelehenero kontzentrazioak egiten. Pentsioen bueltan zegoen ezinegona lehendik zetorren, baina Espainiako Gobernutik pentsionistei bidalitako gutuna izan zen lapikoa bor-bor jarri zuena, hilabeteroko pentsioen igoera % 0,25ekoa izango zela jakinarazi baitzuten.

Kontzentrazioen iraunkortasuna mantentzearekin batera, bestelako ekimenak abiarazi eta bultzatu genituen, hala nola herriko, eskualdeko eta herrialdeko manifestazioak, Urola Kosta eskualdeko pentsionisten eta jubilatuen Plataformaren osaketarekin batera, pentsioen inguruko hainbat hitzaldi ahaztu gabe.

Instituzio publikoen inplikazioa bilatu nahian, Udaletxean mozio bat aurkeztu genuen, eskuartean genituen erreibindikazio nagusiak biltzen zituen, udalbatzan onartu zena. Hauek dira, labur, onartutako mozioaren gai nagusiak:

- Gizarte Segurantzaren kutxa orokorra defizitarioa den bitartean, dagokion defizita bete dadila Estatuko Aurrekontuekin.
- Europako Gutun Sozialak jasotzen duen legez,

**BADAGO, BERAZ, LAN
EGITEKO AUKERA ETA
PARTE HARTZEA. ASMO
HORREKIN HASI DUGU
URTE BERRIA**

Espainiako Gobernua izatea gutxieneko pentsioa 1.080 € izatea bermatuko duena. Hori egin ezean, Eusko Jaurlaritza izan dadila behar den osagarria ezarriko duena, Euskadiko pentsionista guztiak hileroko kopuru horretara iristeko.

• Espainiako Gobernuak indargabetu dezala 2011ko lan erreforma, enpleguaren kalitatea eta, beraz, pentsioetarako kotizazioak kaltetzen dituelako. Halaber, Espainiako Gobernuak indargabetu dezala 23/2013 Legea, jasangarritasun faktorea eta errebalorizazio Indizea arautzen dituen, pentsio duinak eta KPIaren arabera igoko direnak bermatze bidean.

• Babes eta Gizarte Segurantzaren sistema Euskal

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



MIREN OSA

Crowfundinga

Käffka antzezlanaz aritu ziren Erika Olaiola eta Amancay Gaztañaga sortzaileak *Ahoz Aho* saioan. Lesbianismoa lantzen duen obra baten eskaera jaso zuten Gehitu Euskal Herriko lesbiana, gay, transexual eta bisexualen elkartearen eskutik. Nerabeei zuzendutako obra izatea nahi zuten, 12-17 urte arteko gazteek “erreferenteak” izateko.

Ezer gutxi irakatsi ziguten LGTB+ kolektiboaz gure garaian, are gutxiago bi emakumezkoren arteko maitasun istorioez, eta pozgarria da halako proiektuak martxan jartzeko profesionalak daudela ikustea. Gainera, badu proiektuak deigarria egin zaidan beste faktore bat: finantza kolektiboko plataformak erabili dituzte arlo ekonomikoari sostengua emateko. Erakundeek nahikoa diru eman ez eta beste bide batzuk jorratu behar izan dituzte. Kulturak gurean duen garrantziaren islatzat har daiteke jokaldia.

Ardura ez da goikoena soilik. Nago azkenaldian gehiegi jaisten garela Madrilerla *El Rey Leon* ikustera, sarriegi joaten garela espainolek eginiko gaztelaniazko bakarrizketetara; liburuak Amazonetik baino ez ditugula erosten... Sortzaileei ez badiugu merezi duten errekonozimendua ematen, epe laburrean ezer gutxi geratuko zaigu hain maitea dugun euskal kulturaz. ■

Autonomia Erkidegorako, pentsio publikoak eta pertsona nagusien beharrak asetzeko modukoa. Bitartean, urratsak egiten hasi Gizarte Segurantzaren eskumenak Euskadira transferitzeko.

- Zumaiako Udalak mozioaren emaitza igortzea Eusko Jaurlaritzara eta Espainiako Gobernura.

2018ko urriaren 18an, Gasteizen egindako bileran, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Pentsiodunen Plataformak akordio batzuk hartu zituen. Goian aipatu ditugun erreibindikazioez gain, beste batzuk plazaratu zituen, hots:

- Koordainketa eta medikamentazioa deritzonak indargabetzea.
- Zerbitzu Sozial unibertsal, publiko eta doakoak jartzea.

- Aberastasunaren bidezko banaketa baliatuko duen erreforma fiskal berria gauzatzea.

Urrian, baita ere, Hego Euskal Herriko emakume pentsiodunak elkartu nahi dituen Oneka plataforma sortu zen, adineko emakume eta pentsiodunak diren heinean egoera bereziak bizi dituztelako eta horiei erantzuna eman nahi dielako, neurri sozial eta politikoak aldarrikatuz. Beste taldeekin aritu nahi dute eskuz esku, hala nola pertsona nagusien eta pentsionisten mugimenduarekin, baita jendartearekin eta erakundeekin ere.

Badago, beraz, lan egiteko aukera eta parte hartzea. Asmo horrekin hasi dugu urte berria eta iaz bezain animotsu ekitera goaz. ■

IZDEMIR
RI BERDEAK
EMANIAN
ONARTZEA,
POTENTZIA
OFIZIALKI
A BEZALATSU
TEKEELA



Palestinako begiradak

IMANOL MANTEROLA ARGAZKILARIA

Zisjordaniako emakumeen ahalduzko prozesuaren lekuko izan zen Imanol Manterola pasa den abenduan. Emakume horiek garatzen ari diren proiektuak ezagutu zituen, baita bere argazki kamerarekin jaso ere. Argazki erakusketa bat jarriko du orain, prozesu hori gizarteratzeko helburuarekin.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Imanol Manterola**.

Bakerako Lankidetzaren Batzarrearen Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatutako lehiaketa irabazi zuen Manterolak (Zumaia, 1972). Saria Palestinara joatea izan zen, erakunde horrek bultzatzen dituen proiektuen inguruko argazki erreportajea egiteko.

Zazpi egunez izan zen argazkilaria Israelek horma handi batez inguratuta duen Palestinako eremuan. Horren guztiaren inguruan aritu gara Imanolekin hizketan.

Nola sortzen da Palestinara joateko aukera?

Kasualitatez, esango nuke. Facebooken aurkitu nuen argazki lehiaketa baten deialdia. Saria Palestinara joatea zen, argazki erreportaje bat egitera. Bidaiatzea gustatzen zait, eta erronkak ere

erakartzen naute. Garai horretan, gainera, bestelako argazkiak egiteko fase batean nengoen. Fotoperiodismo kontuak betidanik gustatu zaizkit. Argazkien atzean istorioak daude, eta hori bilatu nahi izaten duzu beti. Urte pila bat daramat argazkiak ateratzen, eta neure buruarekin pixka bat aspertuta ere banengoen. Gero eta argazki gutxiago ateratzen ditut, eta, azkenaldian txorienak bakarrik! Txoriek gauzak zail jartzen dizkirate.

Zer lanekin hartu zenuen parte lehiaketan?

Erretratu batekin. Errefuxiatuen kanporaketaren urteurrenean hemen, Zumaian, egin zen ekitaldian ateratako argazki bat bidali nuen. Argazkiarekin batera gutun bat ere bidali behar zen. Gutunean nire curriculumak bidali nien, eta



Zisjordania osoa inguratzen du harresiak. Segurtasunaren aitzakiarekin lur emankor eta ura bereganatzea dute helburu.



Umeak jolasean, atzean palestinar bandera dutela.



Jerusalem hiriaren etorkizuna da gatazkaren arrazoi nagusienetako bat.



Palestinarraren ume bat bere amaren babesean.



Deir Ballut herrian, harresiak erabat kolpatu duen kokagunean, oilaskoak hazteko etxalde bat babesten ari da Donostiako Udala eta Bakerako Lankidetzaren Batzarrea. Emakumez soilik osatua dagoen kooperatiba bat da.



Lurrak ustiatzeko behar-beharrezkoa dute ura, baina, Israelgo gobernuak ditu ur horniduren puntu nagusiak.



argazki rallyek dezente irabazi ditudala ere jarri nuen. Horri ere garrantzia eman zioten.

Argazki rallyetan behar den azkartasun hori kontuan hartuko zuten.

Azkenean rallyek esperientzia ematen dizute.

Ukitu gabeko argazkiak aurkezten dituzu; argazki onak izan behar dute. Rallyetan asko ikasi dut, eta banekien lan hau egiteko prestatuta nengoela.

Argazki erreportaje hau egiteko, zenbat denbora igaro duzu Palestinan?

Abenduko zubian joan nintzen, hilaren 1etik 8ra bitartean. Egun osoak sei izan ziren. Lehen lau egunetan kooperatibetan egon nintzen, lehiaketarekin lotutako bisitak egiten.

Kooperatiba horiek laguntzen dituzte hemendik, batez ere, emakumeek bultzatutako proiektuak. Gobernu Kanpoko Erakunde batzuek, Bakerako Lankidetzak Batzarreak barne, emakumeen arteko topaketak antolatu zituzten egun horietan; kooperatibetan egon ginen, baita kongresu batean ere. Lehen egun horiek oso estresagarriak izan ziren, ordu asko ibili ginen eta batetik bestera. Baina, aldi berean, oso aberasgarriak ere izan ziren. Leku ugari ikusteko aukera izan nuen: udaletxeak, kooperatibak, horien lursailak, etab. Emakume horien topaketen lekuko izan nintzen. Nire lana argazkiak ateratzea zen, baina zertaz ari ziren ere jakin nahi izaten nuen. Baina ingelesez eta arabieraz ziren topaketak, eta nahiko larri ibili nintzen.

Emakumeen ahalduztzea bultzatu nahi dute proiektu hauek. Zer nolakoak dira?



Ramallah hiriararen sarreran dagoen harresia. Egutero lanera joan aurretik *checkpoint* ugari pasa behar dituzte palestinarrek, 3 edo 4 ordu langa pasatzeko soilik. Atasko handiak sortzen dira egutero bai irteteko, baita sartzeko ere.

Proiektu arruntak dira, baina garrantzitsuena da emakumeek bakarrik osatutako kooperatibak direla. Azkenean, beharrak eraman ditu horretara. Emakumeak han ez dira halako lanetan aritu; etxeko lanez arduratu izan dira beti. Baina arazo bat dute eta da familia pila bat gizonik gabe dagoela, hilik edo kartzelan daudelako.

Horregatik, emakume askok hartu du familiak aurrera ateratzeko ardura. Baina oraindik aurreneko pausoak ari dira ematen; kooperatiba hauek zerotik sortzen ari dira. Arazoak ere badituzte, kooperatiba bat sortzeko 15 bat lagun behar dituztelako; hemen hirurekin nahikoa izan ohi da. Kooperatibistak joan dira hemendik beraien esperientzia kontatzera. Oilasko haztegi bat ikusi genuen, mahatsekin produktuak egiten dituen kooperatiba, aterpetxe bat egiteko helburua duen proiektua, azeitunen inguruan lan egin nahi duena... Emakumeek zuzendutako aroztegi bat ere ikusi genuen, baina haiek langile autonomoak ziren; enpresa beraien kabuz sortu zuten.

Emakumeen mugimendua hasten ari den leku batean nongoen. Ahalduztze prozesu baten hasieran daude emakume hauek, eta horren lekuko izan naiz. Gero, mila eta bat arazo dituzte. Beraien lurak ureztatze arazoak dituzte, ura Israelen esku dagoelako. Sortzen dituzten produktuak ere ezin dituzte esportatu. Ekoizten dituzten produktuak garestiago ateratzen zaizkie Israeletik inportatuta baino. Arazoak besterik ez dituzte emakume hauek: kulturalak,

ekonomikoak, politikoak, erlijio aldetik... Esan daiteke eskala batean behe-beheko postuetan daudela. Eta, hala ere, erresistentziako parte garrantzitsua dira. Beraiek zaintzen dituzte umeak, beraiek arduratzen dira etxeko lanez, eta orain sostengua ere beraiek lortzen dute.

Alboan dituzten bizilagunek ere ez dizkiete palestinarrei gauzak erraz uzten.



Egoerak behartuta bada ere, lehendabizikoz sortzen ari dira berdintasun genero zein emakumeen ahalduntzeari buruzko topaketak.

Esan daiteke indarkeriaren erresuman bizi direla. Israelen zapalkuntza jasan behar dute egunero. Hori da israelarren sistema, egunero-egunero palestinarrek jazarzea. Hala galdu dute lur asko. Gaez joaten dira lurak lantzerantz, eguneko orduetan [israeldar soldatuek eta kolonoek] zainduta dituztelako. Lanpostu pila bat ere galdu dute. Zisjordaniako hiriburu administratiboa den Ramallahtik Jerusalemera 15 kilometro besterik ez dago. Baina hiruzpalau ordu behar izaten dituzte hara heltzeko, kontrol pila bat pasa behar dutelako. Hori, egunero. Hori da Israelen politika. Zisjordania horma handi batez inguratu dute, eta haren barruan, leku estrategikoetan eta legez kanpo, kolonia mordo bat sortu dituzte. Landu gabeko lursailik ikusten badute, kolonoak sartu egiten dira. GKE hauek lursail horiek lantzen saiatzen dira, eskuz ez aldatzeko. Berez, kolonoek ezin dute hor egon. Baina oso konplexua da guztia, zer... nork onartzen du Palestina estatu bezala?

Israelen jazarpenak gain, herrialde musulmanek ere ez diete asko laguntzen...

Barruan ere liskarrak dituzte. Al-Fatah dago, batetik. Batzuek diote ustelkeriak janda dagoela



Bi emakume topaketen parte hartzen.



Palestinarren eta kooperanteen arteko hizketaldia. Gaur egun, nazioarteko laguntzarik gabe guztiz ezinezkoa izango lukete aurrera egitea.

"RALLYETAN ASKO IKASI DUT, ETA BANEKIEN LAN HAU EGITEKO PRESTATUTA NENGOELA"

"AHALDUNTZE PROZESU BATEN HASIERAN DAUDE EMAKUME HAUEK, ETA HORREN LEKUKO IZAN NAIZ"

"TAMALEZ, LEKU OSO GUTXI DAUDE KONTSERBATUTA. HAINBESTE GERRAREKIN, TXIKITUTA DAUDE"

eta Estatu Batuen lagunak direla. Bestetik, Hamas dago, batzuen esanetan erakunde terrorista bat. Lehenak bigunak omen dira; besteak, berriz, muturrekoak. Beraien artean liskar handiak dituzte, eta horrela ezinezkoa da herrialde bat altxatzea.

Palestinak bizitzerik ba al du kanpo laguntzarik gabe?

Ez, ez, nik uste ezetz. Zerbaitek harritu ninduen, baina. Langabezia eta pobrezia tasak oso altuak dira han. Baina, heldu nintzenean, ez nuen ikusi pobreziarik inon. Bizitza maila nahiko altua dute, hemen baino garestiagoa. Ez duzu inor kalean dirua eskatzen ikusten. Teknologia goreneko bideo jokoak eta tresnak ikusten dituzu dendetan. Horrek harritu ninduen. Nik uste hori dela erakutsi nahi dutena; pobrezia irudiak ez dituzte erakutsi nahi. Oso bestelakoa omen da Gaza. Hor bai dagoela muturreko egoera.

Lehiaketarekin lotutako argazkiak ateratzeaz gain, izan al zenuen bestelako argazkirik ateratzeko aukerarik?

Bi egunez neure kontura ibiltzeko aukera izan nuen. Jerusalem egon nintzen, eta Itsaso Hilean ere bai. Herodesen *massada* ikusteko aukera ere izan nuen. Mendi baten gainean zegoen gotorleku baten arrastoak daude han. Baina birrinduta dago, eta pena da. Leku oso ezagunak eta esanguratsuak daude han: Jeriko, Jerusalem, Betleem... Baina, tamalez, leku oso gutxi daude kontserbatuta. Hainbeste gerrarekin, txikituta daude. Berriro joateko aukera izango banu, herri txikiak bisitatuko nituzke. Jerikon ez nintzen



Jerusalemeko mezkita. Judutarrek, musulmanek, zein kristauak deseaturako leku debozioa.

egon, Nazareten ere ez. Herri txikiak ikusteko gogoarekin geratu nintzen. Uste dut hor aurkituko nituela nik atera nahi nituen argazkiak.

Leku gatazkatsua da hura. Arazorik izan al duzu?

Ni egon nintzen egunetan ez zen ezer pasa, baina etorri eta hiru egunera atentatu bat izan zen, eta hiru militar israeldar hil zituzten Ramallahko *checkpoint* (kontrol puntu) batean. Armada israeldarra sartu zen ondoren eta Ramallah guztia hartu zuten. Pertsona horiek aurkitu arte ez ziren atera. Nik ez nuen ezer ikusi. Nik uste han, Palestinan, mugitu daitekeela lasai. Ramallahko erdigunean ibili nintzen, eta ez nuen kanpotar bat bera ere ikusi. Baina oso leku segurua da. Kotxe bat alokatu eta han ibil zaitezke lasai.

Gomendatzen dut hara turismoa egitera joatea.

Zerekin atera zara handik?

Kontzientzia berreskuratzea ekarri dit. Akordatzeko naiz orain 20 bat urte, Arranplan, lehorreratzen bat egin genuela, Intifada zela eta. Parte hartu nuen han, zapi palestinarra jantzita. Orduan kontzientzia gehiago genuen. Gero zirkulu batean sartzen zara, haurrekin, hipotekarekin, eta gauza horiek guztiak ahazten ditugu. Orain berriro kontzientzia hartzen hasi naiz. Bisita honekin hogeit hamar urte atzera egin dut, eta pentsatzen dut ea zergatik ahaztu dudan. Zergatik orain ez zaizkigu palestinarrak inporta? Haien inguruko herrialdeek ere beraien arazoak dituzte, eta inor ez da palestinarez akordatzen. Hango egoera gero eta



Betleem hiriko harresian Bansky artista ezagunaren margo originalak ikus daitezke.



Aieneen Harresia deritzen lekua. Harritzekoa da judutarrek erakusten duten debozioa.

okerragoa da. Kontzientzia esnatu egin zait berriro. Argazki hauekin kontzientziazio horretarako ekarpen bat egin nahiko nuke. Hara joango nintzela esan nuenean, jende guztiak esan zidan ea zoratuta nengoen. Arriskua ikusten zuten. Eta justu kontrakoa da: hara joan beharko genuke ikusteko zer gertatzen ari den. Hango errealitatea ikusi eta kontatu egin behar da. ■■■



Begiratzun duzun lekura begiratuta ere etheen eraikuntzak ikus daitezke era masiboan, bai palestinarren aldetik, baita judutarren aldetik ere.



A Zona deritzon sarrera batean ageri den kartela. Palestina osoko %18a besterik ez da A Zona, eta soilik hemen dute aginte osoa.

EUSKARA, BESTELA EZ GARA

HITZALDI ZIKLOA ZUMAIAN

Alondegiko
Oxford aretoan
Asteazkenetan,
18:30ean

2019



Zumaia Udalak

EUSKARALDIA
Euskaltzaleak
saretzeko bidean
ARRATE ILLARO



OTSAILAK
20

Erreferentziak edo
inertziak?
Erreferentziak eta
inertziak
**EDURNE
AZKARATE**



OTSAILAK
27

Euskara lan
munduan. GKNren
esperientzia
**ASIER
ARAKISTAIN ETA
IANIRE FLORES**



MARTXOAK
6

Etorkizuneko
Zumaia nola
garatuko dugu
euskaraz?
**IBON
MANTEROLA**



MARTXOAK
13

enskar enskar enskar enskar enskar
txanpla txanpla txanpla txanpla txanpla
enskar enskar enskar enskar enskar

Batetik bestera, hegan

Ximon Olaizola, hegazkin pilotu baten lanak

Momentu batean Pirinioak zeharkatzen ari da eta handik gutxira Alpeen gainetik dabil. Parisen, Moskuren, Genevaren, Londresen, Dakarren, Miamiren eta beste dozenaka hiriren panoramikak goitik ezagutzen ditu. Zumaia ere askotan ikusi du zerutik. Hegazkin pilotua da Ximon Olaizola Aristi (Zumaia, 1970) eta *Baleikeri* kontatu dizkio bere lanbidearen nondik-norakoak.

Testua: **Maialen Odriozola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Asko gustatzen zait airean egotearen sentsazioa. Hainbeste tona dituen zerbaitek zerua zeharkatzea eta zu izatea gidaria, oraindik ere zoragarria iruditzen zait hori. Momentu ikusgarri asko eskaintzen ditu zeruak. Laino batetik irteten zarenean, adibidez, oso momentu ederra da. Gauzez izar asko ikusten dira eta hori ere oso polita da. Gehien atsegin ditudan uneak, hala ere, aireratzean eta lurreratzean gertatzen dira.

Gaztetatik bizi izan du hegazkinen inguruko zaletasuna Olaizolak. Hamar urterekin gurasoekin hartu zuen lehen aldiz hegazkina; Mallorcara egin zuten bidaia batean izan zen. Orduan, kabina ikusteko aukera izan zuen, eta liluratuta utzi zuten hango argiek, erlojuek, orratzek... Geroztik ez zaio hegan egiteko harra desagertu. Madrilen eta Salamancan pilotu ikasketak egin ondoren, Floridara joan zen hegaldi praktikak egitera.

Gaur egun Madril da bere joan-etorrien kanpamentu nagusia: “Ni beti Madriletik irteten naiz eta Madrilera itzultzen naiz”. Normalean, hiru-lau egun egiten ditu segidan lan eta gero beste bi-hiru egun libre. Hilabete amaieran ematen diote hurrengo hileko ordutegia eta bertan ikusten du zein egunetan daukan lana, zein hiritara egin behar duen hegan... “Batzuetan bi egunetarako joaten gara, beste batzuetan hirurako, laurako... Batzuetan sei ordu sartzen ditugu, beste batzuetan 11... Egun batean bi

hegaldi dauzkagu, hurrengoan lau... Beti ordutegiari begira”.

Aireportura iristean, hegazkin konpainiaren bulegoetara jotzen dute pilotuek, bertan jasotzen baitute egin behar duten hegaldiaren informazio guztia: zer ibilbide egin behar duten, nolako eguraldia egingo duen... “Informazio hori guztia lortu eta aztertzen dugunean hegazkinera joaten gara. Han ikusten dugu hegazkina prest dagoela, azterketa eta kontrol guztiak pasa dituela... Orduan, bidaiariak sartu eta dena prest dagonean, hegazkina aireratzen dugu”.

Gidatzea baino gehiago

Hala, bada, gidatzea baino gehiago da pilotuen lana Olaizolak nabarmendu duenez. Eurek izaten dute beti azkenengo hitza: “Gu gara OKa eman behar dugunak; izan ere, hegaldia atera edo ez azken erabakia gurea da. Ados egon behar dugu emandako ibilbidearekin, eguraldiaren e aurreikuspenekin, etab. Labur esanda, gu gara hegazkinaren segurtasunaren arduradun nagusiak”. Horregatik, erantzukizuna ere handia dela aitortzen du.

Hala ere, argi dauka segurtasuna guztien helburu gorenaren dela; hegazkinak egiten dituen fabrikatzailearena, pilotuarena, kontroladoreena, denena. “Edozein arazo, baita txikiena ere, kontuan hartzen da ezer larria pasa baino lehen zer hobetu daitekeen ikusteko”. Are gehiago, istripu bat gertatzeko, aurretik barrera asko



irrimarra



daudela azpimarratu du: “Lehenengo barrera da hegazkinak gero eta hobeak egiten dituztela; hurrengoa, pilotuen formazioa gero eta hobe dela; hurrengoa, lana egiteko gero eta protokolo gehiago daudela...”. Hala, Olaizolak dio arazoren bat dagoen bakoitzean barrera bat dagoela, akatsaz ohartu eta egoera zuzentzeko. Horregatik, argi azpimarratu du istripu bat erru kate baten ondorioz pasatzen dela: “Akatsak zuzentzeko barrera asko dauzkagu. Hortaz, oso zaila da istripu bat gertatzea; zoritxarrez, gertatzen dira, baina oso-oso zaila da”.

Olaizolak dio teknologia aurrerapenak asko lagundu dutela, baita pilotuen etengabeko formazioak ere. Hegazkin mota batetik bestera mugitzen direnean ikasketak eta egokitzapenak egin behar izaten dituzte. Horrez gain, sei hilean behin hegaldi simulagailu batera joaten dira eta han maniobra ezberdinak praktikatzen dituzte: “Normalean, ezohiko maniobrak izaten dira: motorrean arazo bat edukiz gero, kea irteten bada... egin beharrekoak”. Beti eguneratuta egoteko, hegazkin konpainiak informazio asko helarazten dietela ere nabarmendu du.

Beti maleta eskuan

Hegazkina gidatzeko orduan, Olaizolak dio helmuga bat edo bestea izateak ez diola asko axola. “Agian, lo egiteko orduan nahiago duzu toki bat edo bestea, edota aireportu bat edo bestea, baina hegazkina gidatzeko orduan, helmugak ez dio asko inporta”. Hori bai, helmugaren bat lehenesteko orduan badira kontuan hartu beharreko bi faktore Olaizolaren iritziz: jet lag-aren arrastoa eta etxetik kanpora egin beharreko denbora.

Olaizolak, gaur egun ez ditu ordu diferentzia handiko estatuak bisitatzen; garai batean, ordea, bai. “Hamabi urte pasa nituen hegaldi luzeak egiten, hasieran ondo eramaten nuen, baina urteekin jet lagak gero eta gehiago pisatzen du”. Ohitu beharrean, Olaizolak dio pertsona gero eta gehiago nekatzen dela, edo hori gertatu zela bere kasuan, behintzat: “Hasieran destino berrien irrikarekin hobeto eramaten duzu jet laga, baina denborarekin gero eta gehiago kostatzen da errekuiperatzea. Ni gusturago nago hegaldi laburrekin, baina jende askok nahiago ditu hegaldi luzeak, zeruan denbora gehiago pasatzen duzunez, lanaldiak lasaigoak izan ohi direlako”.

Hain justu, egindako hegaldi luze horietako batean jaio zitzaion semeetako bat: “Gure seme zaharrena jaio zenean, adibidez, Mexikora bidean nioan. Ailegatu nintzenean mugikorrean ikusi nuen bere argazkia”. Hori da, hain zuzen ere,

Ximon Olaizola Aristi

- **Adina:** 48 urte.
- **Ikasketak:** pilotu ikasketak.
- **Lanbidea:** hegazkin pilotua.
- **Pilotua ez banintz...** Egia esan, beti izan dut oso argi pilotua izan nahi nuela, ez zait bururatzen beste lanbiderik.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** etxera etorri eta lasaitasunaz gozatzea. Beti maletarekin ibiltzen gara aurrera eta atzera eta horrela ibilita, gehien estimatzen duzuna zure ohean lo egin, familiarekin egon eta mendi buelta txiki bat egitea da.



Olaizolaren iritziz hegazkinak gidatzearen alderdi txarrena: etxetik kanpora denbora asko egiten dutela.

Horrekin lotuta, aitortu du gizartean badagoela ideia erromantiko bat pilotuaren irudiaren inguruan: “Jendeak uste du gure lanean asko bidaiaitzen dugula, leku asko ikusten ditugula, eta, alde horretatik, zorte handia dugula. Eta egia da,

gure lanbidearen parte bat hori da. Baina, egia da, beste alde batetik, leku batzuetara iristen garenean, terminala ez dugula zapaldu ere egiten. Ez gara hegazkinetik irteten: jendea jaitsi, berria sartu eta airera berriz”. Eta orduan, airean, gozatzen du gehien Olaizolak bere lanbidez: paisaia ikusgarriez, gidatzearen sentsazioaz... Azken batean, hegan egiteaz. ■■■

Merkatariek eta Ostalariek
GERTUko tratua ematen digutelako,

*Zumaian bizi,
Zumaian erosi*

argazkia: baleike.eus

Zumalako Udala

GERTU
GIZARAKO ERREKURTIBO GUTULAKI ELKARTEA

CAJA RURAL

Otsailean

ZUMAIA ELKARTEA
GIZARAKO ERREKURTIBO GUTULAKI ELKARTEA

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Ipuintxoan bi bilduma: Arri Zubimendi
eta Abelin Linazisoro



Itzurun taberna: Andoni Tapia



Zelai talasoterapia: Ihintz Linazisoro

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hilero.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45



Sudokua

Bete itzatzu lauki zuriak
FUTBOL hitza osatzen duten
sei hizkien bidez (F, U, T, B,
O eta L). Kontuan hartu hizki
bakoitzak behin agertu behar
duela lerro, zutabe eta area
bakoitzeko.

	O	F			B
U	L		O		T
B		L	F		
O			B	U	
	T	O		B	
	B		T		F

?

Zenbat
katilu
ikusten
dituzu?



Zazpi irudi-zati hauetatik 4 engainariak dira. Alegia, ez
daude beheko irudi nagusitik hartuta. Zeintzuk dira?

Irudi engainariak



HAU DENA
ERE OPARITU
DIDATE...





Ikusten al
dituzu bi
irudien arteko
aldeak? Hamar
dira guztira.

Hamarrekoa



Han eta hemen

Begiratu ongi bi irudi hauei. Badira zortzi gauza bi
eszenetan ageri direnak. Ikusten al dituzu?




Itzala

Zein da
korrika ihesi
doan horren
itzal zuzena?



puzzlea

Zein da puzzlea osatzeko
behar dugun pieza?



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

garay
manufacture

• 1989tik sukalde altzarietan lanean •

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olaldea aldea 1 (Errotaberrí Industrialdea)
20.800. **ZARAUZ** 943 13 31 09

www.garay.eus

GUK
DISEINATU ETA
EKOIZTUTAKO
SUKALDEAK

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezorreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

Braky's
Okindegia Karetégia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-57 07 79
Móvil: 649 96 72 89

Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

www.eduoptika.com

RPS 18/16

EGOKI

Erlorju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
ZUMAIKO, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekin.com www.eekin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓVIL**

ERNETO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendato marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

Garoa

Carlos Cintero Ainhoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbido kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

goiko bodegaia

Erribera, 9 • 943-86 13 91

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Cure-Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran ingaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

DOIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

Antsietatea



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Antsietatea ez da gaixotasun bat; arrisku une batean edo kezkatuta gaudenean guztiok izaten dugun sentipen bat da. Esan dezakegu une zailetan gure jokabidea hobetzeko balio duen egokitzapen mekanismoa dela. Hala ere, pertsona batek sarri sentitzen badu antsietatea –itxuraz arrazoirik egon gabe– edo gehiegi estutzen bada, arazo bihur daiteke; hau da, sentsazio desatseginak sortzera irits daiteke.

Antsietateak alderdi fisikoan eta mentalean eragiten digu. Izatez antsietatea erreakzio normal bat da, eta helburua ez da hura ekiditea, elkarbizitzeko neurrikoa izatea baizik.

Zer sentitzen dugu?

Antsietateak jota gaudenean, gure nerbio sistema eszizatu egiten da, eta sintoma batzuk sortarazten dizkigu. Hauek dira ohikoenak: tentsio pilaketa lepoan, sorbaldan eta bizkarrean; arnasa hartzeko zailtasuna, ikusmen lausotua eta berotasuna; bihotz taupada maiztasuna azkartzea, bularreko mina, urdaileko korapiloa izatearen sentsazioa, goragalea; izerdia, dardara, inurridura eskuetan eta ezegonkortasuna, hankak hozmintzea.

Zer egin ohi dugu antsietatea dugunean?

Antsietatea duten pertsona batzuek osasunerako kaltegarriak diren ekintzak

egiten dituzte: gehiegi jan, erre edo alkohol gehiegi edan. Posible da horrela antsietatea baretzea, baina epe luzera, egoera zaildu egiten du. Izan ere, alkoholaren, kafearen edota tabakoaren ondorioz, antsietatea sentitzeko aukera gehiago izango baitute.

Beste pertsona batzuek, aldiz, antsietatea sortzen duten egoerak saihesten dituzte. Horrela, une horretan antsietaterik ez dute sentitzen, baina, epe luzera, gauzek okerrera egin dezakete. Horrelako egoerak saihestea ohitura bihur daiteke, eta etorkizunean egoera gainditzea zailago izango da. Okerrago sentituko dira, eta konfiantza gal dezakete.

Zer pentsatzen dugu antsietatea dugunean?

Antsietatea dugunean, gure arazoak puzteko joera izaten dugu; gertatuko denaren aurrean gehiegi beldurtzeko, oker pentsatzeko edo geure burua aurrera jarraitzeko ez gai ikus dezakegu. Bestalde, gaixotasun fisikoa pairatzen dugula iruditzen zaigu eta zerbait izugarria gertatuko zaigula. Pentsamendu horrekin, gure sintomak areagotu baino ez dira egiten. Are gehiago, egoera batzuk gertatu aurretik urduriago egongo gara.

Zer sortzen du antsietatea?

Arrazoi asko eta ezberdinak izan daitezke pertsonaren eta unearen arabera. Batzuek arazoen aurrean neurritz kanpo erantzun dezakete edota

gertaera lazgarri baten ondorio izan daiteke. Arazo txikien pilaketak edota itxaropenak ez betetzeak ere zerikusia dute.

Zerk iraunarazten du antsietatea?

Antsietatea ohitura bihur daiteke; hau da, kezkatzeko, zailtasunak etorriko direla pentsatzeko eta egoera zailak saihesteko ohitura hartu. Alderdi fisikoan, gorputza ohitu egiten da tentsioan egotera, eta egoera guztietan antsietatearen bidez erantzutera.

Antsietateak gorpil zoro bat ezartzen du: haren sintomak desatseginak direnez, pertsona sentikorra bihurtzen da asaldura fisiko guztiekiko, etengabe kezkatzen da zerbait txarra gertatuko zaiola pentsatuz.

Zer ondorio ditu antsietateak?

Antsietateak ez du bihotzeko asaldurekin zerikusirik, ezta buruko eromenekin ere. Oso desatsegina izatera irits badaiteke ere, ez da arazo fisikoen ondorio zuzena.

Hala ere, ezin dugu ahaztu antsietateak zorigaiztoko sentimendua, depresioa, suminkortasuna, lo asaldurak, bikote harremanetan arazoak, toxikoak kontsumitzeko joera eta abar eragin ditzakeela.

Horren ondorioz, antsietatea gainditzeko gakoa haxe da: sentipenak lasaitasunez bideratzea, eta beharrezkoa bada, gertukoei laguntza eskatzeko beldurrik ez izatea. Horrela, egoerari konponbide egokiena aurkituko diogu. ■

PUBLIZITATEA



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako soinu
eta argiztapen alokaitua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ ILEAPAINDEGIA

San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83



JUARRISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



KABI
TABERNA

Petxela Etxezarreta, 15
943-11 74 27



Kaittermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxe: 943-86 03 20



kalari

Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17



**LABARRA TABERNA
ZUMAI**
est. 2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



malaur



marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO s.l.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3 blokea tel. 943-86 16 91



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

Haurrak eta sare sozialak

SARE SOZIALAK



IZAR ARREGI

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Gaur egungo guraso guztien borroketako bat izaten da noiz erosi seme-alabei lehen telefono mugikorra. Garrantzitsua da mugikorra izateko adina ahal den gehien atzeratzea; izan ere, jabetu behar dugu 11 urteko ume batentzat ezinezkoa dela mugikorrak eskura jartzen dizkion harreman sozialak kudeatzea. Hori, 11 urterekin Realean jokatzeko jartzea bezala da. Teknika aldetik gu baino hobeak dira, baina oraindik ez dakite harremanak kudeatzen. Hortik arazo asko etortzen dira. Lagunarteko arazoak beti izango dituzte, hori normala da bizitzan, baina sare sozial digitaletan ohiko arazo horiek gaiztotu egin daitezke. Jolas parkean elkarri burla eginez gero, normalean arazoa jolas parkean amaitzen da eta hurrengo egunerako ahaztu da kontua; burla hori sare sozial batean eginez gero, beste dimentsio bat hartzen du, besteak beste, burla egin duenak ezin duelako kontrolatu noraino zabalduko den. Kalean momentuko burla dena eremu digitalean denboran iraun egin dezake, oso zaila baita erabat ezabatzea. Eta askotan intentzio txarrik gabe ere korapilatzen dira harremanak. Haurrak inpultsiboak dira, momentuan

oso gardenak dira, onerako zein txarrerako. Oraintxe nire lagun onena zara, oraintxe zurekin ez dut ezer jakin nahi. Baina hori tekla edo botoi bati emanda, badoa mundu digitalera, eta kontrola galtzen da. Beste adibide bat, oso ohikoa: festetako argazkiak. Esaten zaie festan daudenean ez partekatzeo argazkirik sare sozialetan, baina parrandan ibili eta argazkirik ez zabaltzea... Ezin tentazioari uko egin. Eta askotan, intentzio txarrik gabe, min egin dezakete. Min euren buruari, hurrengo egunean argazki xelebre hura bidali izanaz damututa; edo min kuadrillan ateratako argazkian oso itxuroso agertzen ez den lagunari. Egoera oso arruntak dira orain arte aipatu ditudanak. Oso ohikoa da, baita ere, identitate faltsuak sortzea sare sozialetan. Adibidez, nik nahi dut jakin nire neska lagunak zenbaiteraino "tonteatzen" duen beste mutilekin, sortzen dut profil faltsu bat eta hasten naiz nire neskari amua botatzen ikusteko nola erantzuten duen. Tamalez, horrelako jarrerak oso

HAURRAK TELEFONO MUGIKORRA BEHAR BADU, HASIERATIK LAGUNDU EGIN BEHAR ZAIO SARE SOZIALEKIN

zabalduta daude, eta erne egon beharra dago, sare sozialetan erraz gaiztotzen direlako harremanak, eta oso zaila delako atzera egitea. Hurrengo atalean hitz egingo dugu zehatzago ziberbullingaz. Bitartean, hauxe da nire aholkua: haurrak mugikorra behar duela erabakitzen badugu, hasieratik oso garbi adierazi behar diogu sare sozialetan dauzkan harremanen segimendua egingo diogula, ez kontrolatzeko, laguntzeko baizik. Eta ez da batere erraza gurasoak muturra noraino sartu behar duen ondo neurtzea. Baina haurrak ezin ditugu bakarrik utzi. Sare sozialak kudeatzea guretzat zaila bada, haientzat bonba bat da. Bestalde, telefono mugikorra ukatzea alferrikako borroka da. Ezin dugu boikoteatu, bestela isolatuta geldituko dira. Beraz, onar dezagun kontu hauetan berriak garela, asko daukagula denok ikasteko. Irizpide bezala, uste dut ona dela sare sozialetan poliki joatea, argitaratuko dugun hori egokia ote den bi edo hiru aldiz pentsatzea. Hemendik urtebetera ondo egongo al da argazki hau? Norbaiti kalte egin al diezaioke? Eta azkena: ez saiatu arazoak whatsapp bidez konpontzen (gurasook askotan egiten dugun akatsa). Jarri hitzordua eta hitz egin aurrez aurre. Askoz errazago ulertuko duzue elkar. ■■■

"Iraganeko klimaren kutxa beltzak dira kobazuloetako estalagmitak"

ARANTZA ARANBURU EHUKO GEOLOGOA

Azken milaka urteotako klima nolakoa izan den zehaztasun handiz jakin dezakete ikertzaileek kobazuloetako estalagmitei esker. Lan horretan ari da Arantza Aranburu geologoa gure inguruko zenbait kobazulotan.

Testua: **Gorka Zabaleta**. Argazkiak: **Arantza Aranburu eta Gorka Zabaleta**.

Txindoki eta Aizkorriko tontorrak umetatik izan dira Arantza Aranbururen (Olaberria, 1966) paisaiaren parte. "Mendi horiek guztiak nola sortu ziren nire gurasoei esplikatzeko saiatzen naiz, haiek ulertzeko moduan. Izan ere, inguratzen gaituen paisaia nola sortu den ulertzen dugunean dena beste modu batera ikusten dugu. Eta laguntzen digu ulertzen zergatik garen garen modukoak". Gurasoei jartzen duen enpeinu berbera jarri du elkarrizketa honetan, karst-a zer den eta kobazuloetan egiten ari diren lana uler dezagun.

Zumaia inguruan daukagun paisaia, flyscha eta karsta oso esanguratsuak omen dira. Flyscha zer den ikasi dugu pixkanaka, baina zer da karsta?

Bai, alemanieratik ekarritako bi hitz arrotz dira, gainera... Gure paisaia ulertzeko funtsezkoa da ulertzea zer den karsta. Azken finean, urak haitzean gauzatzen duen disoluzioa da. Edozein arrokatan gertatzen da, baina kareharrian

nabarmenagoa da eta gurean kareharria da nagusi.

Beraz, kimikarekin dauka zerikusia?

Hori da. Urak disolbatzaile lana egiten du. Erraz esplikatuta, urak egiten duena da pH-a aldatu, haitzetan dauden mineral batzuk desegonkortu egiten dira, eta urak gaitasun kimiko handia dauka mineral horiekin lotu eta berekin eramateko. Eta ur hori azidotuta baldin badago, haitza disolbatzeko gaitasun handiagoa izango du.

Baina guk karst deitzen diogu paisaia mota jakin bati...

Karsta da urak disolbazioz jandako haitza. Gertatzen dena da kare haitza oso egokia dela urak kaltzioa disolbatu eta eskultura modukoak lantzeko, eta horrek paisaiari izaera berezia ematen dio.

Horiek dira Lastur eta Olatzeko bailarak, esate baterako...

Horiek dira bi adibide on. Ez dakit jabetu zareten, baina kosta lerroitik barrurantz begiratuz gero, mendi tontor gehienak oso metro gutxiko



Arantza Aranburu laborategian, estalagmita baten kristalak aztertzen. GORKA ZABALETA

aldearekin lerroka daitezke, multzo ezberdinetan. Kostatik hasita, badago koska bat 80 bat metrora dauden tontorrekin, beste bat 300 bat metrora, atzerago beste bat 600 bat metrora eta azkena mila ingurura. Batzuk dira tontorrek eta beste batzuk mendi etzanagoak. Adibidez, Andutz eta Salsamendi. Zergatik dute hainbat tontorrek altuera ia berbera? Ez al da bitxia?

Eta erantzunik ba al daukazu?

Itsas hondoan sortutako kareharriak direlako. Behin baino gehiagotan entzungo zenuten gaur egun labarretan ikus ditzakegun flysch horiek itsaso sakonean sortu zirela duela milioika urte. Ba, garai berekoak dira gaur egun barnealdean dauzkagun kare haitzak. Sakonera txikiko uretan sortu ziren haitz haiek, orduko kosta lerrotik gertuago. Gero, Pirinioekin batera, itsas hondo hura altxatu zenean, kare haitz lau eta garbia geratu zen azalean. Zer gertatzen da horrelakoetan? Lurrazala laua bada, euri urak ez du aldaparik maldan behera abiatzeko. Zer egiten du? Haitzak dauzkan zirrikietan sartu eta kare

haitza jaten hasten da, kaltzioa disolbatzen. Lauzpabost milioi urtez lanean, gaur egun ikusten dugu paisaia landu du: altuera bereko tontor segidak, disoluzioak eragindako dolinaz eta zuloz bananduta. Horri deitzen zaio arrautza kaxa itxurako karsta.

Urak haitzean egiten duen etengabeko disolbatze lan horren emaitzetako bat kobazuloak dira. Azken milaka urteotan klima nola aldatu den ari zarete aztertzen kobazuloetan. Nola egiten duzue?

Ohartu gara kobazuloetako estalagmitak [zoruan behetik gora tantaz tanta sortzen diren kandelak] iraganeko klimaren kutxa beltzak direla. Urtez urteko zehaztasunez azter daiteke milaka urtetako klima. Aldera daiteke zuhaitzetako enborren eraztunekin.

Zergatik estalagmitak eta ez estalaktitak?

Estalagmitak hobeto gordetzen du kobazuloak urtez urte izan duen batezbesteko tenperatura. Ur tanta oraindik estalaktitan zintzilik dagoenean kanpoko tenperaturarekin dator, eta oso aldakorra izan daiteke. Tanta lurrean osatzen ari



Kristalaren kolore aldaketak klima aldaketa adierazten du: zati grisagoan kristalak ordenatuago sortu ziren, euri gehiago egiten zuen seinale; zati zuriagoan, berriz, kristalek abaniko forma dute eta horrek esan nahi du tanta-jarioa moteldu egin zela.

den estalagmitara erortzen denerako kobazulo barruko temperaturara egokitu da. Eta hau garrantzitsua da: kobazulo barruko temperatura eta kanpoaldeko urte osoko batezbesteko temperatura bat datoz beti. Hori gertatzen da kobazuloek autoerregulatzeko sistema bat dutelako. Beraz, horri esker, estalagmitek gordetzen dute ondoen kanpoko batezbesteko temperaturaren erregistroa.

Konforme, baina estalagmita batean zer arrasto uzten du temperaturak? Nola zarete gai hori neurtzeko?

Hemen kimika sartzen da berriro... Ura hidrogenoz eta oxigenoz dago osatuta, hori badakizue. Baina urak daraman oxigenoa bitan bereiz daiteke: oxigeno 16 motakoa eta 18 motakoa. Itsasotik lurruntzen denean, urak bi oxigeno motak proportzio berean dauzka. Baina proportzio hori aldatu egiten da, besteak beste, temperaturaren eraginez Zenbat eta temperatura altuagoa, orduan eta oxigeno 18 gehiago.

Estalagmitan tantaz tanta sortzen joan den kristal horretan hori bilatzen dugu, oxigeno moten arteko proportzioa. Horrela jakin dezakegu garai bakoitzeko temperatura, eta zer bilakaera izan duen, berotzera edo hoztera jo duen.

Eta neurtzen duzuen beste parametroa euria izango da, ezta?

Hori da. Garai bakoitzean euri gehiago edo gutxiago egin duen jakiteko estalagmita osatzen duten kristalen formari begiratzen diogu. Kristalak nola osatu diren. Izan ere, tanta jarioaren erritmoak erabat baldintzatzen du kristalaren barruko forma. Hori mikroskopioarekin ikusten da oso ondo. Euririk falta ez den garaietan tanta jarioaren erritmoa altuagoa izango da, demagun tanta bat edo bi minutuko. Kasu horietan, estalagmita beti dago bustita eta kristala oso modu ordenatuan sortzen da, zutabeak osatzen ditu, bata bestearen segidan. Baina garai lehorragoetan, jarioa askoz pausatua denean, kristala modu desordenatuagoan sortzen da, ura falta zaiolako.



Abaniko moduko formak osatzen ditu, orratzekin. Hortik abiatzen gara euriaren bilakaera neurtzeko.

Baina hori ez da nahikoa estalagmita balekoa izateko...

Ez da nahikoa, ez. Bada ezinbesteko beste baldintza bat: datagarria izan behar du. Hau da, kapaz izan behar dugu estalagmita hori osatzen duten kristalak noiz sortu ziren jakiteko. Datarik gabe, ezin ondorio zehatzik atera. Eta horretarako uranioa da giltza. Beharrezkoa da kobazulora iritsi den ur tanta horrek bidean uranio pixka bat jaso izana. Tanta estalagmitara erortzen denean, kristalean kapsulatuta gelditzen da uranioa. Uranioa erradioaktiboa da, beti dago desegite prozesuan, eta kristalaren barruan hasten da "umeak" egiten, abiadura konstantean. Torio partikulak dira uranioaren umeak. Zenbat ume belaunaldi sortu dituen neurtuta jakin dezakegu zenbat denbora pasa den estalagmitara iritsi zenetik. Horrela datatzen ditugu estalagmitak. Zehaztasun handiz data daitezke nahikoa uranio edukiz gero, eta hor badugu zailtasun bat.

Zer zailtasun?

Orain arte Geoparkean aztertu ditugun estalagmita gehienek ez dute uranio nahikorik. Denboraren akats tarte handiegia ematen dute

ondorio garbiak ateratzeko. Eta pena da, oso pieza onak direlako, milaka urtetako sekuentzia osoak dauzkagu, baina oraingoz data zehatzik ezin jarri. Dena den, esperantza badaukagu etorkizunean datatzeko sistemak hobetu eta estalagmita hauek gordetzen duten informazio guztiari data jartzeko gai izango garela.

Eta zergatik dute hain uranio gutxi? Horrentzat azalpenik ba al daukazue?

Tantaz tanta

Euria egiten duenean, ur gehienak erreketatik egiten du bere bidea, baina bada zati bat haitzean zehar bidea motelago egiten duena. Haitzak daukzan poroetan sartu eta haitza disolbatzen hasiko da pixkanaka, CO₂aren eta presioaren laguntzarekin. Kare haitzari kaltzioa *lapurtuko* dio eta, haitza zeharkatu eta kobazuloaren sabaira iristean, nola txanpain botilak kortxo kentzean, halaxe askatuko du ur tantak bide lagun izan duen CO₂a, eta kaltzioa ere kristal bihurtzeko libre izango da. Horrela osatzen dira, tantaz tanta, milaka urtez, kobazuloetan aurkitzen ditugun forma ederrak (espeleotemak).

Kobazuloaren kanpoaldean landaredia ugaria bada, usteldu eta materia organiko bihurtzean CO₂ asko sortzen du. Ur tantak CO₂ karga handiagoa eramango du, azidotu egingo da, eta horrek disolbatze gaitasuna areagotu egingo du. Horregatik da karsta hain nabarmena, adibidez, Lasturren edo Olatzen.



Praileaitzekoa da *Novella* estalagmita, Geoparkearen eremuan orain arte lortu duten alerik onena. Estalagmita aukeratu aurretik hainbat neurketa egiten dituzte, ahalik eta erregistrorik onena duela ziurtatzeko. Ondoren, estalagmita bitan zatitzen dute, bertikalean, zatietako bat gorde eta bestearekin lan egiteko. Harria leundu, zati txikiagoak atera eta azkenik 30 mikrako lodierako xaflak egiten dituzte, mikroskopiaioan kristalaren osaera ikusteko.



Itsas hondooan sortutako kareharri garbi horrek apenas du uraniorik, hori da arazoa. Uranio asko dute, adibidez, buztinek. Baina hemen kare haitzaren gainean ez zegoen ez buztinik, ez ezer. Haitz garbi-garbia azaleratu zen.

Dena den, estalagmita bakarren bat topatu duzuen balekoa...

Praileaitzeko *Novella* [izena jartzen diete aztertzen dituzten estalagmitei] da Geoparkean aurkitu dugun onenetakoa. Baina badaukagu beste estalagmita bat oso ona, *Moreno* izenekoa, Gernika eta Bermeo artean dagoen Goikoetxe kobazulokoa. Hark badu nahikoa uranio. Milaka urtetako klimaren erregistroa dauka, zazpi urteko

zehaztasunarekin. Ikaragarria da hor dagoen informazioa.

Eta orduan, batean eta bestean aztertu duzuenaren arabera, gure inguruan nola aldatu da klima azken milaka urteotan?

Ikusi dugu hemen klima beti izan dela atlantikoa, beti egin du euria. Garai batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago, baina euri faltarik ez da izan. Hori bai, ikusten da joera lehortzekoa dela. Duela 14.000 urte klima oso euritsua zen; duela 8.000 urte hotzagoa zen eta euri gutxiago egiten zuen; duela 6.000 urte aldatu egin zen berriro, eta hezeagoa eta euritsuagoa bilakatu zen; eta duela 3.000 urtetik idortzen ari da, tanta jario asko eten egin dira.

Egiten ari zareten klimaren ikerketa hau oso interesgarria da, ordurako gizakia paraje hauetan bizi zelako. Ez gara ari dinosauroen garaiaz.

Gaur egun ikerketa asko doaz bide horretatik. Jakin nahi da klimak zer eragin izan duen gizateriaren garapenean, nekazaritzaren sorreran, historiako hainbat gertaeratan. Azken finean, azken milaka urteotan egon gara gu hemen.

Estalagmita batzuetan gizakiaren arrastoa aurkitu duzue.



Bai, duela milaka urte kobazuloetan ibili ziren gizakiek egindako suaren errautsak daude zenbait estalagmitatako kristalean harrapatuta. Hortik



"KARE HAITZA OSO EGOKIA DA URAK KALTZIOA DISOLBATU ETA ESKULTURA MODUKOAK LANTZEKO"

"ESTALAGMITAK NAHIKOA URANIO BADU ZEHAZTASUN HANDIZ DATATU DAITEKE ERREGISTRO OSOA"

"DUELA HIRU MILA URTETIK KLIMA IDORTZEN ARI DA, TANTA JARIO ASKO ETEN EGIN DIRA"



abiatuta, ikerketa interesgarriak egin daitezke, garai bakoitzean sua egiteko teknika ezberdinak zeuzkatelako –egurra edo animali gantza–, eta teknika bakoitzak errauts edo hondakin ezberdina lagatzen duelako. Azter daiteke, adibidez, marrazkiak dauden galerietara behin sartzen ziren marraztera eta kito, edo sarri joaten ziren lekuak ote ziren? Hori ere konta dezakete estalagmitek. Baina hori beste istorio bat da.

Metafora indartsua da errautsek belztutako estalagmitarena...

Bai, harrian dago gizakiaren marka. Iraganeko klimaren bilakaera aztertzea da gure lana, baina hortik asko ikas daiteke eragiten ari garen klima aldaketaren ondorioen inguruan. Ziklo naturalak aztertuta, mila bat urte barru hoztera jo beharko luke klimak. Baina gizakiok berogailua piztu dugu, topera, gainera; eta, itzaltzen badugu ere, ez da ziurra klima bere berezko joerara itzuliko denik. ■■■

Karea eta karobiak, kea airean



IMANOL AZKUE

Hitzak berak adierazten du zer den karobia: karea egiteko hobia edo zuloa. Baina askok ez dute jakingo zer den karea, eta are gutxiagok jakingo dute Zumaian ere izan genituela karobiak eta oraindik badauzkagu haien aztarnak.

Karea kaltzio oxidoa da, hau da, konposatu kimiko bat, giro tenperaturan dagoenean kolore zurikoa, kaustikoa (erre egiten duena) eta alkalinoa. Normalean, karea lortzeko kareharria (edo kare haitza, gaztelaniaz “caliza”) erabiltzen da, beroaren bidez (harria erreta).

Lehenagotik ere ezaguna zen, baina Euskal Herrian, XVIII. mendearen hasieran ugaritu zen karea nekazaritzan, konturatu zirelako berez hotza zen lurra berotu egiten zuela. Halaber, ikusi zuten karea oso egokia zela beste erabilera batzuetarako: eraikuntzan, paretak egiteko eta harriak lotzeko, masa gisa (garai batean oso ezaguna zen, adibidez, Zumaiaiko *hirautila*, inguruko fabriketan egiten zelako); etxeetako eta baserrietako hormak zuritzeko (kare esne edo letxadarekin, hau da, karea urarekin nahasita); gaixotasunen edo izurriteen aurrean erabiltzeko, oso desinfektante ona zelako;

animalia batzuegandik (karakol, bare...) eta gaitz batzuetatik (gorni, lizun...) babesteko laboreak; arrautzak kontserbatzeko edo gehiago iraunarazteko... Karea oso presente egon zen gurean azken bi mende eta erdiko bizimoduan, baina XX. mendearen erdialdean, ongarr kimikoen eta porlanaren industriakoizpenarekin lehiatu ezinik, baserrietan lurra lantzeari utzi eta abeltzaintza nagusitzearekin batera, karea egiteari utzi zioten baserritarrek eta karobiak itzali egin ziren.

Karea karobietan egiten zuten. Labe bereziak ziren, kareharria kiskalduta kare bizia egiteko erabiltzen zirenak, eta lehengaiak non, handik hurbil eraikitzen zituzten; labearen paretak gehienetan arbelezkoak edo harearrizkoak izaten ziren (suak ez dituelako erretzen), hiru metro zabal inguruko zuloa eta altueran beste horrenbeste izaten zuten, biribilean. Labera materiala inguratzen zuten: erregaia (egurra) eta kare harriaren koskorrak, txikituta. Karobiaren

**KAROBIAK BATEZ ERE
BASERRI INGURUETAN
ERAIKI ZITUZTEN, ETA
BATZUEN ARRASTOAK
BADAUZKAGU ZUMAIAN**

azpialdean, lehendabizi, egurra jartzen zuten; horren gainean, kare harria eta gainean berriro erregaia, txandan-txandan. Dena prest zegoenean, karobiari su ematen zioten beheko ahotik, eta beste zulo batetik airearen sarrera erregulatzen zuten. Kea behatuta, karegileek bazekiten egosketa nola zihoan: kearen kolore zuriak adierazten zuen tenperatura behar baino baxuagoa zela; urdinxkak, berriez, ondo berotzen ari zela. Labea piztuta mantentzen zuten hiru egun eta astebate artean, dena erre arte; gero, sua itzali eta pare bat egunez hozten utzi ondoren, kare bizia ateratzen zuten. Normalean, hiru edo lau lagun aritzen ziren lanean, txandaka, eta gehienetan inguruko baserrietakoak izaten ziren, auzolanean.

Karobiak batez ere baserri inguruetan eraiki zituzten, eta batzuen arrastoak badauzkagu Zumaian. 1997an marraztu zuen leku izenen mapan, Arantxa Ugarte oikiarrak bi karobiren kokalekuak jasota dauka: bata, Meaga aldera, Urteagazar inguruan, Soburuzkoa; bestea, berriez, Oikiatik Ibañarrietarako bidearen ondoan, Iparragirre baserritik hurbil, Goiburukoa. Horiez gain, jakin badakigu beste karobi bat izan zela Jesuskoa baserriaren ondoan,



Beste leku batzuetan ederki mantendu dituzte karobiak. Hau Urtokoa da, Leitzan. URANTZU



Floresko karobiaren zuloa, 1970eko hamarkadaren hasieran. Inguruan sasiak kentzen hasi eta azaldu zen zuloa. JOSE MARIA GUTIERREZ AZCUNCE TXETXU



Floresko karobiaren zuloa, 2019-01-06an, sasiak hartuta. IMANOL AZKUE

PUBLIZITATEA



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 • Tel. 943-14 31 12
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
Joxe Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide ibiltoxia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



SOLOZABAL
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaraia
taberna • jatetxea

Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA

TTAKUN Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodillak)
Salbitzak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondarza plaza, 4 behe • Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna

Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xanti
ALTBARIAK

Amaiako plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behe
943-14 32 78

Zalla

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdia Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax 94301 51 26



Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

eta beste baten aztarnak ikusteko moduan daude oraindik Zubitxotik Lore baserrirako bidearen bazterrean, landarediaz estalita eta ondo gordeta. Artadi aldean, beste baten aztarnak ere badaude, Flores baserriaren ondoan, hau ere landaretzak hartuta.

Lehengo paperetan begiratuta, karea eta karobiak mintzagai dituzten dokumentu ugari daude. Horrela, gure herrian ekitaldi bereziren bat zenean (Probintziako Junten bilera, erreginaren edo erregearen etorrera, ospakizunen bat...), Udalak eskatzen zien herritarrei etxeak zuritzeko eta edertzeko, baina garai hartan ez zen pinturarik erabiltzen horretarako, baizik eta letxada; adibidez, herrian Probintziako Juntak egin behar zirela eta, 1801ean: “que a los dueños de las casas que tienen en el cuerpo de esta villa en la carrera en donde deben pasar las Procesiones de Juntas se les haga una insinuación, a fin de que las compongan y en el caso de que se escusasen a lucirlas o blanquearlas”¹; 1868an: “Se acordó también oficiar en nombre de esta Municipalidad al Señor cura de esta Parroquia para que invitara al vecindario al blanqueo de sus casas”²; edo 1900ean, Euskal Jaiak Zumaian izango zirela eta: “se ordene se arreglen y blanqueen las



Zubitxo ondoko karobiaren ahoa, Oikian, 2019-01-06an. IMANOL AZKUE

fachadas de las casas de esta población para las fiestas Euskaras”. Gaitzen bat zenean, are arrazoi handiagoarekin zuritzen zituzten etxeak; adibidez, 1865ean, “cólera morbo asiática” gaitza zela eta, Udalak erabaki zuen “que se haga acopio de lechada”³ (eta horrekin batera, bitxikeria gisa, “que se extraigan de la población todos los pulpos podridos que hubiese en las casas”); beste zita hau 1885ekoa da, berriro ere “cólera morbo” gaitza etor zitekeela eta: “En vista de que se había agenciado la cal, se acordó se depositase bajo los soportales de la entrada de la Iglesia o en el depósito allí existente, y se reparta a domicilio como está ordenado”⁴, eta ondoren beste erabaki bitxi bat: “Por unanimidad se acordó el establecimiento de 5 hornos en distintos puntos del pueblo para purificar la atmósfera y la cal que produzcan dichos hornos, se destine a desinfectar las letrinas, blanqueo de habitaciones y cementerio”. Garai batean, zementua egiteko labeak ere bazeuden

herrigunean bertan; *Zumaia Historia* liburuan jasota dagoenez, Gurrutxaga familiak hiru labeko zementu fabrika izan zuen 1894ra arte Petxatokiko kalestuan⁵. Azkenik, beste adibide bitxi bat: 1893an, Jose Maria Arrizabalo herritarrek udaletxearen ondoko terrenoetan bi metro koadro eskatu zituen, “para formar un depósito para lechada de cal, previo canon anual”⁶.

Duela gutxi egur ikatza egiteko txondorra piztu zuten Aizarnazabal aldean, eta asko joan ginen hura ikustera; ezagutu ez dugunok, ikusiko ote/ahal dugu karobiren bat martxan gurean? Horra hor enbidoa... ■■■

¹ Zumaia Udal Artxiboa, 70. kutxa (1801-04-19).

² ZUA, 73.01, 159. or. (1868-05-22).

³ ZUA, 73.01, 37. or. (1865-10-15).

⁴ ZUA, 2823, 116v. or. (1885-08-06).

⁵ ODRIOZOLA, Lourdes: *Zumaia Historia, Zumaia Udal, 1998. 392. orrialdea.*

⁶ ZUA, 2825, 120. or. (1893-04-06).

KULTURA

Migrazioaren musika

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Jon Maia buru duen Hezurbeltzak hirukoteak kontzertua emango du otsailaren 15ean, ostirala, Zumaiaiko Aita Mari zinean. Emanaldia 22:00etan hasiko da eta sarrerak aurrez eros daitezke www.hezurbeltzak.com webgunean, 10 euroan. Egunean bertan 12 euroan izango dira salgai.

Bertsolaria, idazlea edota dokumentalen zuzendaria, Jon Maia musika mundura itzuli da Hezurbeltzak proiektuarekin. Karidadeko Bentako kide izana, talde baten buruan jarri da berriro: bera da abeslaria, baita abestien letren egilea ere. Hirukotea Jesus Prieto *Piti* gitarra jotzaileak eta Gorka Hermosa soinu jotzaileak osatzen dute. *Ele! Lorca-Lauaxeta* ikuskizuneko partaide izan zen Maia, eta han ezagutu zituen bi musikari hauek. “Maila handiko bi musikari dira, bakoitza bere instrumentuan onentsuenak. Berehala hartzen dituzte ideiak, eta sorkuntzarako ere gozamina da beraiekin lan egitea”, adierazi zigun Maiak azaroaren amaieran egindako elkarrizketan.

Lehen disko honek taldearen izen bera du eta Deep Soda etxe nafarraren bidez argitaratu dute. Maiak azkenaldian jorratu duen etorkinen inguruko diskurtsoa musika mundura eramane du proiektu honekin. “Nire *abuelaren* eta Francoren



Ezkerretik eskuinera, Piti, Maia eta Hermosa. HEZURBELTZAK

garaian hona etorritako etorkinen presentzia handia dago. Baina ez da hori bakarrik: maitasuna eta beste istorio batzuk ere badaude”.

Hamahiru kantaz osatzen da diskoa, eta bertarako aurrez aipatutako *Ele! Lorca-Lauaxeta* obrako kanta batzuk hartu dituzte. Horiez gain, Sarrionandiaren poema batean oinarritutako kanta bat, Gorka Hermosaren *Gernika* eta Maiak amonari dedikatutako abesti bat sartu dituzte. “Bestela, denetik dago: rap bat dago, Joxe Ripiauren antzeko pare bat kanta, ranchera bat... Gitarra jotzailearen eragina ere nabari da Los Secretosen edo La Cabra Mecanicaren ukituak dituzten abesti batzuetan”. Piti talde horiekin aritu da zuzenekoa askotan.

Disko “sailkaezina” eta, aldi berean, “dibertigarria” dela zioen abeslariak elkarrizketa

hartan. “Nahiko sailkaezina dela esango nuke. Badaude maitasun kontuak, baina ez da regetoi disko bat. Ni naiz letren egilea eta esango nuke nire eragin denak ikusten direla. Letra askoko diskoa da; garrantzi handia eman diet letrei. Ez da inoiz jakiten noiz ari naizen bromatan eta noiz serio. Horrekin ere jolas egiten dut, gustatu egiten zait. Entzuten duenari pentsarazten dion diskoa izan daiteke. Nik uste nahiko disko ausarta dela, bai estilo aldetik, baita letretan ere. Eduki handiko diskoa dela uste dut, dibertigarria, eta nahiko harrigarria”.

Azken abenduan egindako Durangoko Azokan aurkeztu zuten diskoa zuzenean, eta ordutik hainbat tokitan aurkeztu dute, besteak beste, Bilbon eta Zestoan. Otsailaren 15ean Zumaian entzuteko aukera izango dugu. ■

AGENDA

ERAKUSKETAK

OTSAILAK 9-24

Xomorroak, *Antonio Valencia*.

OTSAILAK 28-MARTXOA 17

Irrimarra.

DEIALDIAK

MARTXOAK 1-4

Inauterikiak.

OTSAILAK 20-MARTXOAK 13

Asteazkenetan *Euskara, bestela ez gara zikloa*.

OTSAILA

2 LARUNBATA

Kalejira: Beheko Plaza abesbatzaren Santa Ageda.
18:00etan.

7 OSTEGUNA

Zine forum: *Infiltrado en el KKKlan*.
Zuz.: Spike Lee.
Aita Marin, 22:00etan.

13 ASTEAZKENA

Meditazio saioa: Gune elkartearen eskutik.
Forondan, 19:30ean.

14 OSTEGUNA

Entzunaldia: Pianoa, Musika eskolaren eskutik.
Komentuan, 19:00etan.

15 OSTIRALA

Kontzertua: Hezurbeltzak.
Aita Marin, 22:00etan.

16 LARUNBATA

Tallerrak: *Oporrak bakean*, Darahlik antolatuta.
Oxford aretoan, 11:00etan eta 17:00etan.

Antzerkia: *Golazen 5.0*.
Zumaienan, 11:00etan eta 19:00etan.

20 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Euskaraldia, euskaltzaleak sareteko bidean*, Arrate Illaro.
Oxford aretoan, 18:30ean.

21 OSTEGUNA

Zine forum: *Lazzaro Feliz*. Zuz.: Alice Rohrwacher.
Aita Marin, 22:00etan.

23 LARUNBATA

Euskaldun txirrindulari proba: XI.
Zumaia Saria.
10:00etan.

Zumaiako XXXV: Herri lasterketa.
15:45tik 18:15etara.



22 OSTIRALA

Antzerkia: *Tendríamos que haber empezado de otra manera*, Javier Liñera.
Aita Marin, 22:00etan.

27 ASTEAZKENA

Hitzaldia: *Erreferentziak edo inertiak? Erreferentziak eta inertiak*, Eurne Azkarate.
Oxford aretoan, 18:30ean.

Solasaldia: *Erligioak Euskal Herrian gaur: ikuspegi orokorra, erronkak, aurreikuspenak*, Iziar Basterretxea, Gune elkartearen eskutik.
Forondan, 19:30ean.

BIYONA
BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA
943-14 34 43
www.biyona.net

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Ezer ez da dirudiena



GURE GAUZAK S.A.

Egilea: Ur Apalategi Idirin
Argitaratzailea: Utriusque Vasconiae
Argitaratze urtea: 2004
Orrialdeak: 288
Generoa: Eleberria



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Guztiok izaten ditugu aurreiritziak, eta ondorioz badira okerreko begitik sartzen zaizkigun idazleak, edo zuzenean begi onez ikusten ditugunak, ia beti, beti ez esatearren, iritzi literarioekin inongo zerikusirik ez duten kontuak aintzat hartuta. Nik ere baditut batean zein bestean sailkatutako idazleak eta Ur Apalategi bigarren taldekoan sailkatuta dudala esateko inolako lotsarik ez dut, batez ere, Dublingo aireportuan erabat galduta nengoen batean Miarritzerako hegaldiko atea zein zen argitu eta bertara lagundu zidanetik.

Liburuaren gomendioak ez du zerikusirik idazleekiko gure aurreiritziekin, oraingoan gomendatzen dugun liburua benetan erakargarria delako eta joko interesgarri baterako atea irekitzen digulako baizik.

Gure Gauzak S.A. suspenseko eleberri bat baino gehiago da;

bertan, misterio bat argitu beharrean aurkitzen da protagonista, baina misterio horren testuingurua euskal literatura edo euskal literaturaren sistema da, eta testuinguru hori da, hain zuzen, liburu hau horren erakargarri egiten duena.

Nobelako protagonista Julene Oihanburu dugu, Euskal Filologia ikasketak burutzen dabilena eta dagoeneko arrakasta handia izan duen ipuin liburu baten egilea. Gauzak horrela, Gure Gauzak argitaletxeak hil berri den idazle baten biografia egiteko beka emango dio. Biografiaren prestaketa lanean dabilela, ezer ez da dirudiena, eta

MISTERIO HORREN TESTUINGURUA EUSKAL LITERATURA EDO LITERATURAREN SISTEMA DA

ustekabeen, euskal kulturgintzaren alde ezezagun bezain ilunak deskubritzera eramango du Julene, hain zuzen, ordura arteko bere ibilbide arrakastatsua galzorian jarriko duen benetako ikerketa poliziakoa bihurtzeraino.

Narrazioan zehar benetako pertsonaiak azaltzen diren arren, inoiz ez dute parte hartze zuzena eleberriaren traman, garbi esan behar baita istorio bera zein bertako protagonistak fikziozkoak direla, nahiz eta irakurleak bertan aipatzen diren idazle, editore zein argitaletxeei benetako izena jartzeko tentazioan berehala erori.

Nabarmentzekoa, hala ere, liburu berak izan zuen ibilbidea, dena fikzioa den arren, ohiko argitaletxeek uko egin baitzioten Ur Apalategiren lan hau argitaratzeari, eta azkenean Utriusque Vasconiae argitaletxeak sail berri bat sortu behar izan zuen liburu honek argia ikus zezan. ■■■

Co-housing



MAIALEN VELARDE

Muxuak Internet bidez eta isunak postaz bidali eta jasotzen diren garai hauetan, egun onak balkoitik balkoira oihukatzen dira Alfamako kaleetan. Izarak lehortzeko eguzkirik azaltzen ez denetan ere, kontu kontari ibiltzen dira 70ak aspaldi paseak dituzten emakumeak eta gustura asko onartuko zaituzte “balkoien asanbladan” leihotik burua ateratzen duzun lehen egunean.

Baina gauak gautxoriak eta egiak biak batera esnatzen ditu, eta gizartearen gabeziek ere diz-diz egiten dute hiriaren iluntasunean. Bakardade bana leiho bakoitzeko. Gure etxeetako zirrikitu eta ate guztiak itxi ditugu nor sartuko beldurrez, eta orain geu gara bertatik atera ezinik gaudenak. Bakar-bakarrik.

Halako zerbait izango zuen buruan Bodil Graa kazetariak, 1967an “ume batek 100 guraso izan beharko lituzke” iritzi artikulua idatzi zuenean. 60ko hamarkadako bizi ereduak nazka-nazka eginda, gonbita egin zien Danimarkako bere herritarrei, etxebizitza multzo bat sor zezaten, bertan komunitatean bizitzeko.

Jendearen erantzuna ugaria eta berehalakoa izan zen. Bost urteren buruan iritzi artikulua hura 27 etxebizitza, hezkuntza sistema autogestionatu bat eta langile kooperatiba bat bihurtu

ziren. “Bofællesskab”: Danimarkako lehen Co-housinga.

Baina gizarte honetan askotan gertatzen den modura, izena sortzen duenak ez du zertan haren atzean dagoenaren aitzindari izan. Hori dela eta, bizimodu kolektibo honen nondik norakoak ezagutzearekin batera, guregandik hurbil ditugun adibideak ere badirela ohartuko zarete.

Co-housinga elkarbizitzaren ideia bera duten jende multzo batek sortutako komunitatea da, bizitza pribatua eta publikoaren arteko muga malguago batean sinisten duena. Arkitektura mota honek komunitatearen beharrianen arabera auzo autogestionatua sortzea du helburu eta bertan bizi dena proiektuaren parte da, ez erabiltzaile soilak. Zoriontasuna konpromiso sozialaren truke.

Gaur egun, danimarkarren % 10 etxebizitza eredu kooperatibo hauetan bizi da. Baina, Euskal Herrian bestelako errealitateak aurkitzen ditu

**ALDA DITZAGUN
BIZITZA ETA ETXEAK,
ETA BEHARREZKOA
BADA, ETXEBIZITZAK
ERE**

sistema honek, gizarte indibidualista honen konponbidea izan dezakeen giltzari maratilak behin eta berriz aldatzen baitizkiote. Errekaletorrez ari naiz, noski.

Bakarrik sentituko garen beldurra ate gutxi izango ditu oraindik jo gabeak, baina badugu irtenbiderik: izan La Entrepatis kooperatiba Madrilen, izan La Muralleta co-housinga Santa Olivan edo Errekaletor, Gasteizen. Alda ditzagun bizitza eta etxeak, eta beharrezkoa bada, etxebizitzak.

Har ezazu segundo bat pentsatzeko eguneroko inertzia frenetiko horretan, bi begien artean jarri dizuten familia gizarte eredu hau ote den zoriontsu egiten zaituena. Ni ez nago batere ziur.

Papera eta boligrafoa mahai gainean utzi eta leihora hurbildu naiz arnas bila. Pareko 60 m²-ko etxean izara garbiekin egingo dute gaur lo, beheko bizilagunaren katu persiarrak galtzerdi erosi berriak puskatu dizkio bart jabearen maitaleari eta bigarren pisuko semeak auzoko supermerkatuan lana aurkitu du azkenean. Tamalez, garbigailu asko eta elkarrizketa gutxi gurean ere. Eta nola dakidan hori guztia? Balkoietan zintzilikatzen ditugun arropak guk baino gehiago esaten dutelako askotan; zintzilikatzen ditugulako bizitzak, lehortzen zaizkigulako ohartu gabe. ■

Museifikazioa



JUAN LUIS ROMATET

Museoekin harreman aldrebesa dut. Badakit bertan gordetzen eta erakusten direla historian zehar egindako artelan garrantzitsu asko, eta, museo arkeologikoen kasuan, baita antzinako zibilizazioen aztarnak ere. Baina arazo bat dut museoekin, eta da saturatu egiten nautela.

Badaude salbuespenak, noski. Londresen dagoen British Museum dut guztien artean gogokoena. Historia maite dut txikitatik, eta Asiriako, Mesopotamiako edo Egiptoko eskulturak eta bestelako objektuak ikusi eta, kasu batzuetan, ukitzeko aukera izatea txundigarria da (britainiarrek kolonizazio garaian egindako jabetzen inguruan beste noizbait hitz egingo dugu).

Tamaina txiki edo ertainetako museoetan eroso sentitzen naiz: Bartzelonako Picasso Museoan edo Madrilgo Caixa Forumen, kasu. Ez, ordea, handietan. Eta errua oso-osorik nirea da, museoak ez ditudalako behar bezala bisitatzen. Museo batera sartzean pentsatzen dut ez naizela sekula itzuliko, eta eduki hori guztia ordu eskas batzuetan irentsi nahi izaten dut.

Interes handiarekin hasten ditut bisitak, eta korridoreetan edo gelatan aurkitzen ditudan margo, argazki edo eskulturak atentzio osoz begiratzen ditut. Baita ondoan edo azpian izaten dituzten txarteletako azalpenak irakurri ere. Minutu gutxira, baina, hiru artelanetatik bakarra begiratzen dut, eta geroxeago irteerako atea aurkitu nahian hasten naiz.

Hiri handietara joaten diren turistek ohikoa izaten dute museoren bat bisitatzea. Ezaguna bada, hobe; eta museo horren barruan denok ezagutzen dugun artelan bat badago, hobeto. Horrek badu bere eragina: masifikazioa, hain zuzen ere. Urtarrilaren 11ko *El País* egunkariak arrisku horren inguruko erreportajea zekarren. Zioen egunero 20.000 lagun igarotzen direla *Giocondaren* aurretik, Parisko Louvre museoan. Alegia, Zumaiako biztanleria osoa bitan egun bakarrean. Noski, baldintza horiekin nola gozatu artelan batez? Posible al da koadro edo eskultura batean kontzentratzea bisitari kopuru handi horrekin? Ez da erraza, ezinezkoa dela ez esatearren. Urte hasieran Madrilgo Caixa Forumen egon nintzen, faraoien inguruko erakusketa ikusten. Hainbeste ume zegoen, hainbeste turista (ni barne), ezinezkoa zen erakusketa lasai ikustea. Ordu erdiren bueltan kalean nintzen kafe bat hartzeko gogoarekin.

El Paíseko artikulu hartantxe Madrilgo Prado museoko gidari batek zioen Jeronimo Bosch *Atseginen baratzea* bezalako obra bat behar bezala ikusteko, gozatzeko eta ulertzeko, gutxienez, 20 minutu behar direla. Hori, gainera, bakardadean. Nirekin ez lukete arazorik izango: 20. minuturako museoko atean egongo nintzateke irten nahi dudala oihukatzen. ■■■

**TAMAINA TXIKI EDO
ERTAINETAKO
MUSEOETAN EROSO
SENTITZEN NAIZ. EZ,
ORDEA, HANDIETAN**



**Casa
BASUSTA**
LORATEGIA

*Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak
Lore-zentruak, Koroak
Landare naturalak eta artifizialak
Zermika-lanak eta zumezko saskiak*

Etxez etxeko zerbitzua!
Santiago auzoa, 18
Tel. 943 862 611



Galdona
buidinegia

denda:
Mendaro marinela, 1
tel.: 943-14 33 46

biltegia:
Jose M^a Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943-86 11 17
fax: 943-86 13 30

industrialarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



ON GOURMET

Etxean bezala



**PRESTATURIKO JANARIAK, EDARIAK...
ETXERA ERAMATEKO PREST !!**

Itzurun zuhaitzbidea, 1 · 943-14 35 06 · 686 82 29 19 · tiendaongourmet@gmail.com